

BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA – PROZEDURA
(Alkatetzak 2020ko ekainaren 5ean ebatzia)

2020ko ekainaren 05ean Alkatetzak, Azpeitian Babes Publikoko etxebizitzaren zozketa 2.fasea ekainaren 18an ospatzea ebatzi du. Bi mota desberdineko etxebizitza babestuak izanik, honakoa izango da bai zozketan zein aukeraketetan jarraituko den hurrenkera:

- 1.zozketa Babes Ofizialeko 39 Etxebizitza (38 kupo orokorra – 1 kupo mugikortasun mugatua)
Esklabak-lturzulo
Hauen aukeraketa honako egunetan izango da:
- 2020/06/29 astelehena 17:00etan lehen 12 esleituk aukeraketa egingo dute
18:00etan hurrengo 10 esleituk aukeraketa egingo dute
 - 2020/07/02 osteguna 17:00etan hurrengo 8 esleituk aukeraketa egingo dute
18:00etan hurrengo 8 esleituk aukeraketa egingo dute
 - Esleitu gabe etxebizitzaren bat geldituko balitz, 2020/07/13, 2020/07/20 edo/eta 2020/07/27an itxaron zerrendakoei jakinaraziko zaie aukeraketak egin ditzaten
- 2.zozketa Erregimen Bereziko 28 Etxebizitza Tasatu (27 kupo orokorra – 1 mugikortasun mugatua)
Esklabak-lturzulo
Hauen aukeraketa honako egunetan izango da:
- 2020/07/06 astelehena 17:00etan lehen 15 esleituk aukeraketa egingo dute
 - 2020/07/09 osteguna 17:00etan hurrengo 12 esleituk aukeraketa egingo dute
 - Esleitu gabe etxebizitzaren bat geldituko balitz, 2020/07/16, 2020/07/23 edo/eta 2020/07/29an itxaron zerrendakoei jakinaraziko zaie aukeraketak egin ditzaten

PROZEDURAREN JARRAIBIDEAK

2020ko ekainaren 05ean Alkatetzak "Esklabak-lturzulo" eremuan eraikiko diren etxebizitzak publikoak zozketatzeko baldintzak arautzen dituzten Oinarrietako seigarren klausulan xedatua dagoenaren arabera, zozketarako onartu eta baztertu izan diren parte-hartzaileen behin-betiko zerrendak onartzea ebatzi du.

Bi zozketa egingo dira eta dagokion kasuan, kupo bakoitza bere aldetik zozketatuko da: hasteko mugikortasun mugatua duten pertsonen kupoa zozketatuko da, eta ondoren kupo orokorraren zozketari ekingo zaio.

Horretarako, Azpeitiko Notarioak mugikortasun mugatua duten parte-hartzaileei dagozkien zenbakiak ontzian sartuko ditu.

Ondoren, etxebizitzak esleitzeko adina zenbaki aterako dira eta horiek izango dira behin-behineko esleipendunen zerrenda osatuko dutenak, ondoren beren etxebizitzak aukeratzeko. Zenbakiak ateratzen diren neurrian, zenbakiak esleitzeko erregimenetik eratorritako esleipen bikoitzik ez dadin gertatu begiratu da, oinarrietako bostgarren klausulan zehaztua dagoenari jarraituz. Esleipen bikoitzen bat gertatuko balitz, azken ateraiko zenbakia baztertu eta beste bat aterako da horren ordez.

Jarraian, kupo orokorreko zozketan parte hartuko duten parte-hartzaileei dagozkien zenbakiak ontzian sartuko dira.

Ondoren, etxebizitzak esleitzeko adina zenbaki aterako dira eta horiek izango dira behin-behineko esleipendunen zerrenda osatuko dutenak, ondoren beren etxebizitzak aukeratzeko. Zenbakiak ateratzen diren neurrian, zenbakiak esleitzeko erregimenetik eratorritako esleipen bikoitzik ez dadin gertatu

begiratuko da, oinarrietako bostgarren klausulan zehaztua dagoenari jarraituz. Esleipen bikoitzen bat gertatuko balitz, azkena ateratako zenbakia baztertu eta beste bat aterako da horren orde.

Zozketa bakoitzean azken zenbakia ateratzen denean, ordezkoen zerrendak osatuko dira partaide izan arren esleipenik lortu ez dutenekin, azkenengo esleipendunaren zenbakiaren ondorenekotik hasita.

Ordezkoen zerrendatik kanpo utziko dira zozketan esleipena jaso duten bizikidetza-unitateei dagozkien zenbakiak.

Etxebizitzen eta gehigarrien aukeraketa zerrendako hurrenkeraren arabera egingo da. Horretarako, esleipena lortu duen bakoitzak Azpeitiko Udaletik jakinarazpen bat jasoko du zein egun eta ordu zehatzetan Azpeitia Berritzen SAREN bulegoetara joan beharko duen aukeraketa egitera jakinaraziz. Babes Ofizialeko Etxebizitzen kasuan, jakinarazpen hori Etxebideko espedientean dagoen helbidean egingo da eta Etxebizitza Tasatuen kasuan eskaera orrian dagoen helbidean. Esleipena lortu duena edota honek modu fede-emailean bere ordezkari izateko ahalordea eman dion pertsona ez bada agertzen zehaztutako egun eta ordu horretan Azpeitia Berritzen SAREN bulegoetara, etxebizitza eta gehigarriak aukeratzeko duen lehentasuna galduko du ondoren zehazten den moduan:

- Jakinarazitako egunean dagokion orduan azaltzen ez bada (hau da, beranduago), egun horretako azkena izango da etxebizitza eta gehigarrien aukeraketa egiten.

- Jakinarazitako egunean azaltzen ez bada balizko arrazoirik egiaztatu gabe, esleituen zerrendan azken postura pasako da etxebizitza eta gehigarrien aukeraketa egiteko.

- Jakinarazitako egunean azaltzen ez bada osasun arazo edo eragozpen fisiko bat medio (gehienez bi eguneko epean egoera horren egiaztagiria aurkeztu beharko du), hurrengo astean lehena izango da etxebizitza eta gehigarrien aukeraketa egiten.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 42.2 artikuluan dioenaren arabera, Jakinarazpena egin ezin bada edo iñor ez bada berorren kargu egiten, lehen ahalegina espedientean jasoko da eta beste ahalegin bat egingo da, bakarra. Bigarren ahaleginean ere huts egiten bada, jakinarazpena hutsegina bezala deklaratu da eta Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da jakinarazpena.

Egiten den aukeraketa bi aldeek sinatuko duten aukeraketa-aktaren bidez egiaztatuko da, eta akta horretan aukeratu den etxebizitza eta gehigarriak eta behin-behineko prezioa jasoko dira; bi etxebizitza motetan behin-behineko esleipendun suertatuz gero (zozketaren arabera), horietako edozeinen aukeraketa sinatzeak gainerako zerrendatik kanpo gelditzea dakar. Esleipena lortu duenak aukeraketaren behin-behineko prezioaren gainean kalkulatu den aurrerakinaren ordainketa egin beharko du zehaztutako den epe baten barruan, kontratua sinatu aurretik.

Azpeitian, 2020ko ekainaren 05ean.